

## **ONKOLOGIKOAREN EGOERARI ETA OSAKIDETZAREN INTEGRAZIOARI** **BURUZKO MOZIOA**

Onkologikoko Paziente eta Erabiltzeileen Batzordeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Onkologikoaren egungo egoera eta Osakidetzaren integrazioa direla eta.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Azkeneko urteetan, Donostian kokatutako Onkologikoaren egoera egunetik egunera okertzen ikusten ari gara. Onkologikoko pazienteen elkarrearen hitzetan, erabiltzaileak izan direnak eta egun direnak, lehenengo pertsonan bizitzen ari dira Onkologikoko zentroak eta zerbitzuak izan dituen aldaketak.

Nahiz eta, erakunde desberdinetan gobernuan dauden agintariek esan Onkologikoaren jardueraren %100 diru publikoz finantzatua dagoela, Osakidetzarentzat zentro garrantzitsua dela eta errekurtsio funtsezkoa dela Onkologia arloan Osakidetza erreferentziazko erakundea bilakatzeko; praktikan guztiz baztertua eta infra-erabilia dagoen espazioa da.

Hain zuzen ere, kezka areagotzen ari da paziente zein profesionalen artean, alde batetik, ikusten dutelako zentroa infra-erabilia dagoela (2. solairua hutsik dago, 51 geletatik 6 edo 8 soilik daude okupatuak, osasun profesionalak lan jarduera gabezi nabarmena dute, eta abar) eta, bestetik, lehen diagnostikotik hasita frogatuta, tratamendu, jarraipen guztia Onkologikoan bertan egiten zen bitartean, orain gauza bakoitza toki desberdinetan egiten delako. Honek, pazienteak egoera nahiko zaugarrian uzten ditu eta leku batetik bestera ibiltzea derrigortzen ditu. Kezka horren seinalea da, urriaren 15erako pazienteen elkarrearen zein enpresa komiteak

deituriko manifestazioa.

Horiek horrela, Onkologikoko Paziente eta Erabiltzeileen Batzordeak, honako mozio arrunt hau aurkezten du:

- Lasarte-Oriako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Onkologikoa zentroa, onkologian izaera monografiako duen zentro gisa definitzea eta zerbitzuak doitzea, horretarako Osasun Saisetrik hartu beharreko neurri guztiak hartuz, langileen ordezkariarekin elkarlanean, paziente guztiak behar duten osasun arreta jaso dezaten.
- Lasarte-oriako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari Onkologikoa bere osotasunean Osakidetzan integratzeko ekimena berrartu dezala, Onkologikoko langileak ere kontutan hartuz eta eurekin integraziorako plan bat landuz eta adostuz, egutegi baten baitan.
- Lasarte-Oriako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari Onkologikoak lehen zuen aktibitatea berreskuratzeko eta handitzeko neurriak har ditzala.

Lasarte-Orian, 2022ko azaroaren 3an

Onkologikoko Paziente eta Erabiltzeileen Batzordeak

DAVID  
ARES  
RODRIGU  
EZ

Firmado  
digitalmente por  
DAVID ARES  
RODRIGUEZ  
Fecha: 2022.11.04  
12:05:07 +01'00'

ESTIBALIZ  
GARMEND  
IA ARRIETA

Digitally signed  
by ESTIBALIZ  
GARMENDIA  
ARRIETA  
Date: 2022.11.04  
11:02:15 +01'00'